

## KARGU PUBLIKOEN ORDAINSARIAK 2019

Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 75. artikuluan eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 13. artikuluan agindutakoan oinarriturik, Udaleko kontu hartzailea kontsultaturik, eta idazkaria entzunda Udalaren ezaugarri bereziei erreparatu ondotik, Osoko Bilkuran Udaltzako aho batez honako hau erabaki du:

Lehena.-Alkateak dedikazio osoa izatea mantentzea.

Bigarrena.-Alkateak lanaldi osoa izanen du, hau da, 35,40 ordu astean. Bestalde, 32.592,06 euroko soldata gordina jasoko du urtean, laguntza familiarra barne. Hamabi hilabetetan banatua, eta aparteko bi paga. Zenbateko horiei legeak agindutako atxikipenak aplikatuko zaizkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Gizarte Segurantzako langile kuota kontuan izanik. Era berean, Udalak bere gain hartuko du enpresa kuota ordaintzea.

Alkatearen ordainsariak urtero eguneratuko dira Nafarroako Administrazio funtzionarioen igoerarekin batera, organo eskudunak bestelako igoerarik ezartzen ez badu eta inolako beste akordiorik hartu gabe.

Hirugarrena.-Gizarte Segurantzaren Diruzaintzako Lurralde Bulegoan eskatzea Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean sartzeko edo alta emateko, legediak agindutako moduan.

Laugarrena.-Alkatearen liberatzeari buruzko erabaki honek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hartuko du indarra.

Bosgarrena.-Dedikaziorik ez duten gainerako hautetsiek zenbateko hauek jasoko dituzte organo kolegiatueta joateagatik,.

-Organo kolegiatueta agertzea: 95 euro (laurogeita hamabost euro) organo kolegiatueta bilkura bakoitzean agertzeagatik, urtean 1.459,36 euro, gehienez ere.

Zenbateko horiei legeak agindutako atxikipenak aplikatuko zaizkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta.

Hurrengo urteetan, zenbateko horiek eguneratuko dira, Toki Administrazio zuzendari nagusiak onesten duen urteroko ebazpenean xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.-Udaltzako kideek kalte ordainak jasotzeko eskubidea dute karguan ari direla izandako gastuen ordainean, betiere gastu horiek behar bezala baimendu badira eta agirien bidez justifikatzen badira. Baldintzak eta zenbatekoak, berriz, Nafarroako Administrazio Publikoetako langileentzat urtero ordainsarien alorrean ezartzen direnak izanen dira.

Zazpigarrena.-Erabaki honek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hartuko du indarra.

Zortzigarrena.-Erabaki honen berri ematea Udaltzako Kontu-hartzailetzari.

Bederatzigarrena.-Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean argitaratzea.

Etxarri Aranatz, 2019ko maiatzaren 22an  
ALKATEA, Eneka Maiz Ulaiar.

